

Eguzki panelak instalatu dira Krispiñan

Krispiñako araztegiak **eguzki panelez osatutako energia iturri berri bat** du, guneak energia sortzeko duen gaitasuna osatzera datorrena, izan ere, orain arte arazketa lohien tratamenduagatik sortzen den biogasetik abiatuta lortu izan da energia, tratamendu hori delarik ur zikinen arazketa prozesuaren funtsezko zati bat.


Plaka berriekin instalatu den potentzia 280 kW-ekoa da, eta urtean 500.000 kWh inguruko ekoizpena lor daiteke. Energia ekoizteko modu berri horrek AMVISAK **energia berriztagarrien eta autokontsumoaren** alde egiteko duen borondateari erantzuten dio. Enpresak beste 220 kW gehiagoko potentzia instalatzea aurreikusten du, 500 kW-era iristeko.



Gaur egun, Krispiñako araztegia Gasteizko uraren ziklo integralaren kudeaketan kontsumitutako energia guztia-
ren %65en arduraduna da. Biogasaren aprobetxamenduari esker, instalazioan sortu eta autokontsumitutako energia bere beharren %52 asetzen du.

Urak nota ona jaso du

Joan den uztailean, AMVISAK inkesta batean parte hartzera gonbidatu zituen herritarrak, **iturriko uraren kalitateari (zaporea eta usaina) buruzko pertzepzio orokorra** ezagutzeko eta eguneratzeko. Laginaren tamaina maila estatistikoan behar bezain adierazgarria izan ez bada ere, lortutako emaitzek pertzepzioaren inguruan egindako azterketek aurrekoetan adierazitakoa berresteko balio dute: biztanleek edateko uraren kalitatea positiboki baloratzen dute, eta horren kontsumoa oraindik ere oso orokortuta dago.



- Parte hartzaileen **%91k** adierazi zuten beti iturriko ura kontsumitzen dutela.
- Inkestatuen %84k baino gehiagok adierazi dute hornitutako uraren kalitatea ona edo oso ona dela, eta lortutako **batez besteko kalifikazio orokorra 5etik 4,21ekoa** da. %83k 4 edo 5 puntu eman zioten uraren zapore-usainari eta uhertasunari.
- Parte-hartzaileen %76k esan zuten ez zutela zapore-usainik hautematen edateko uretan. Zapore-usaina detektatu zutenen artean, kloroa identifikatu zen gehien, eta, ondoren, lurra. Oso kasu bakanetan izan ezik, pertzepzio hori eta bere maiztasuna ez dirudi denik iturriko ura ez kontsumitzeko edo ohiko beste erabilera batzuetan ez erabiltzeko kausa zuzena.
- Parte hartzaileen erdiek tratamenduari eta edangarri bihurtzeko erabiltzen diren produktu kimikoei buruzko **informazio gehiago** eskatu zuten, baita egindako analitikak ikusteko sarbidea ere. AMVISAK gogorarazten du informazio hori **bere webgunean eskuragarri dagoela**, Gure enpresa/Zerbitzuko datu esanguratsuak/Uraren kalitatea atalean. Hor, aplikatu beharreko araudian eskatutako parametroen urteko batez besteko balioak kontsulta daitezke, hornikuntza guneen arabera. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari (Ingurumen osasuna) aztertzen diren laginei buruz egunero jakinarazten zaizkion emaitza analitikoetarako sarbide zuzena ere jasotzen du, eta laginketa puntu bakoitzari buruzko informazioa kontsulta daiteke, dataren eta analisi motaren arabera.

Inkestaren bidez jasotako informazio eta iruzkin guztiak kontuan hartuko dira gure zerbitzua eta, bereziki, hornitzen den uraren kalitatea mantentzeko eta hobetzen jarraitzeko.

Eskola sentsibilizazioa



Guztira **31 ikastetxek** egin dute bat Futura Planaren sentsibilizazio kanpainarekin, beren instalazioetan uraren erabilera arduratsua sustatzeko. Ikastetxe horietan duela hilabete batzuetatik gizarte etxeetan, kiroldegietan eta beste udal instalazio batzuetan aurki daitezkeen sentsibilizazio kartel berdinak jarriko dira.

Lankidetzaz horri esker, **1.400 kartel** banatuko dira, eta parte hartzen duten ikastetxeetako hezkuntza komunitatea osatzen duten **20.000 pertsonarengana** iritsiko da (ikasleak, irakasleak eta gainerako langileak).

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

info@amvisa-futura.org